

Udal autonomiatik abiatuta, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua eskuordetu ahal izateko formula adostu dute Arabako udalek Foru Aldundiarekin

- Lurraldeko sentsibiltate politiko desberdinek osatutako EUDELen Lurralde Batzordeak dagokion formula erabaki du, hala erabakitzen duten Arabako udalek Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (EELZ) Foru Aldundiari eskuordetzeko aukera izan dezaten eta kudeaketa-agindua haren esku utz dezaten, betiere, udal autonomia kontuan izanda.
- Xede horretarako, EUDELek ereduzko 4 agiri jarriko ditu udalen esku, prozesua egituratzeko beharrezkoak diren tresna juridikoekin: *Eskuordetze eta kudeaketa-aginduaren hitzarmena, Udal araudia, EELZ eskuratzeko Baremoa eta Zerga ordenantza*.
- Erabiltzaileei zerbitzura (EELZ) iristeko eskubide subjektiboa bermatzea da azken helburua, modu homogeneoan, bizi diren udalerriaren arabera izan gabe, eta zerbitzuaren egungo kalitatezko eta hurbileko arretako estandarrak mantenduz.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 9a. Arabako Lurralde Batzordeko alkateek (EUDEL), lurraldeko sentsibiltate desberdinen ordezkari diren aldetik, borondate politikoa adierazi dute, hala nahi duten Arabako udal guztiei, udal autonomian oinarrituta, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (EELZ) Foru Aldundiaren esku uzteko eta kudeaketa agintzeko aukera ematen duen formula eskaintzeko. Lurraldeko 20.000 biztanletik beherako udalerri guztiek egin ahal izango dute bat erabakiarekin, Vitoria-Gasteizek izan ezik.

Udaletan prozesua azkar eta zuzenbidearekin bat etorritik egituratu dadin, EUDELek **ereduzko 4 agiri** jarriko ditu euren esku, beharrezko **tresna juridikoekin**: Eskumenak eskuordetzeko eta kudeaketa agintzeko hitzarmena, Udal araudia, Zerbitzua eskuratzeko Baremoa eta EELZren prezio publikoa arautzen duen zerga ordenantza

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua udalen eskumeneko zerbitzua da 1996. urtetik, baina Arabaren lurralde osaera berezia eta haren udalerrien dimentsioa kontuan hartuta, Foru Aldundiaren bidez eskaini izan da zerbitzua, martxan jarri zenetik bertatik. Udal autonomiatik abiatuta eskuordetzearen bidea aukeratzen bada, udalen eta Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailaren artean lortutako **akordioak bi helburu** izango ditu: **zerbitzuen kalitate gorena** orain arte bezala mantentzea, eta, aldi berean, hura **etengabe hobetzen** jarraitzea, eraginkortasun eta efizientziazko irizpideen bidez, betiko moduan pertsonetikiko **arreta hurbilagoa** eskaintzearen aldeko apustua eginez, hori baita politika publiko guztien azken helburua.

Intentsitate handiko lan nekezaren ostean lortu dugu akordio hau, hala maila politiko instituzionalean —tokiko erakundeen eta foru instituzioaren artean beharrezko **adostasuna** eraiki eta elkarlana artikulatzeko— nola —eta batez ere— maila teknikoan, indarrean den araudi berriaren arabera tokiko interesei modu egoki eta zorrotzenez erantzungo dien formula juridiko egokiena topatzeko. Hori guztia, eta, batez ere, Arabako **herriarren eskubide subjektiboa bermatzeko**, zeina Gizarte Zerbitzuen Lege berrian eta Gizarte Zerbitzuen Zerrendaren Dekretuan (2016ko abenduaren 26ik aurrera egin da eraginkor) aitortua dagoen.

EUDELen laguntza teknikoa prozesuan

Udalek eta Aldundiak Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua eskuordetu ahal izateko eta kudeaketa agintzeko adostu duten formulak, betiere udal autonomia kontuan izanda, lan tekniko nekeza eskatu du, zerbitzuaren beraren ezaugarrien azterketa zehatzean oinarrituta. **Lan-plangintzak** bi urte iraun du, eta EUDELen aholkularitza tekniko-juridikoaren bidez gauzatu da, Arabako Foru Aldundiarekin elkarlan estuan eta udal mailako talde politiko eta teknikoen erabateko inplikazioarekin.

2016. eta 2017. urteen artean, EUDELek bilerak antolatu ditu jarraikortasunez lurraldeko udal eta kuadrillekin, ematen ari ziren urrats guztiak adostu eta koordinatzeko. Zentzu horretan, Gizarte Zerbitzuen **Erakunde Arteko Mahaia**ren balioa nabarmendu behar da, toki eta foru ordezkarien arteko topagune gisa; izan ere, hark banatuko ditu Zerrenda Dekretuko zerbitzu eta prestazioen eskumenak, eta, era berean, Arabako gizarte-zerbitzuen Mapa egin eta garatuko du. Erabakiak hartzeko orduan organo nagusi izan den Erakunde Arteko Mahaiaz gain, udaletako eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko (GOFE) hainbat arlotako ordezkariak —landu beharreko gaien arabera— osatutako **lantalde tekniko** bat ere osatu zen. Halaber, Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailak modu koordinatuan lan egin du Ogasun Sailarekin eta Garapen Ekonomikorako eta Lurralde Orekarako Sailarekin, zerbitzu eta baliabideen eskumenen banaketa nahiz Lurraldeko gizarte-zerbitzuen mapa ongi burutzeko.

Gizarte Zerbitzuen Mapa sortzeko, Erakunde Arteko Mahaia abiarazi zuen EAEko lehenbiziko lurraldea izan zen Araba.

2016ko urtarrilaren 13an izan zen Aldundiaren eta lurraldeko alkateen arteko **lehenbiziko topaketa instituzionala**, Arabako Gizarte Zerbitzuen Maparako oinarri bihurtuko zen zonifikazio geografikoari heltzeko, bai eta lan metodologiaren oinarriko alderdiak eta mapa hori egiteko irizpide orokorrak zehazteko ere. Prozesu horren **bigarren fasean**, ordurako martxan zeuden zentro, zerbitzu eta prestazio ekonomikoen inbentarioa erkatu eta adostu zen. **Azkenik, hirugarren fasean** eskumenen banaketari zegozkion moldaketak adostu ziren udal eta kuadrillekin. **Ondorioz**, mapak 2016ko uztaillean jaso zuen behin betiko onarpena, eta urte bereko abenduan jarri zen martxan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzu eta prestazioetara jotzeko eskubide subjektiboa indarrean sartu zenean.

Eskuordetzea egiteko eta kudeaketa agintzeko tresna juridikoak

Lurraldeko 20.000 biztanletik beherako udal guztientzat (Vitoria-Gasteiz izan ezik) aurreikusitako eskuordetze-hitzarmenarekin batera, prozesua gauzatzeko beharrezkoak diren tresna juridikoak ere balioztatu dira. Zehazki, **lau agiri onetsi dira**. Foru Aldundiak udal eskumeneko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua egituratzea errazten dute juridikoki:

1.- EELZaren kudeaketaren agindua eta eskumenak eskuordetzeko akordioa Arabako Foru Aldundiaren eta udal bakoitzaren artean. Eskuordetzearen eta kudeaketaren aginduaren irismena jasotzen du, AFaren esku utzitako eta hari agindutako eskumenen gauzatzea, ekonomia- eta finantza-araubidea. Gobernu eta koordinazio Batzorde baten sorrera aurreikusten du, zeinetan udal eta foru ordezkariak parte hartuko duten.

2.- EELZa arautzeko Udal Araudia. Eranskin gisa txertatzen zaio Hitzarmenari; akordioa eraginkorra izan dadin eta indarrean sar dadin, eskumena duen udal organoak onartu beharko du. Araudi honek zerbitzua lurraldeko udal guztietan modu homogeneoan bermatzea ahalbidetuko du.

3.- EELZrako sarbide baremoa. Zerbitzua eskatu duten pertsonen artean EELZrako lehentasuna ezartzen duen Araudiaren eranskina.

4.- EELZaren prezio publikoa arautzeko Zerga Ordenantza. Eranskin gisa txertatzen da Hitzarmenean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak —eta AFaren Gizarte Zerbitzuen Sailaren menpeko erakundeak— eskainitako zerbitzuen prezio publikoak erregulatzen dituen Foru Dekretua Zerga Ordenantzara moldatzen du.

Bidezkoa da eskuordetzea eta kudeaketa agindua adosten duten **udal guztietarako Zerga Ordenantza berbera izatea**; horrenbestez, Araudia bezalaxe, eskumena duen udal organoak onetsi beharko du ordenantza hori, hitzarmena eraginkorra izan dadin eta indarrean sar dadin. Foru Aldundiaren EELZaren kudeaketa udalaren arabera prezio publikoen erregulazio desberdinen menpe ez egotea da **azken helburua**.